

## **Euskalduna, elebiduna da**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-12-07: 2.

Haurra nintzela, euskaldun soila gehienbat elebakarra zen, eta "analfabetoa". Hau aurpegiratzen ziguten erdaldun elebakarrek, batez ere eskolan, eskola erdaldun ofizialean sartzen ginenean! Gogoan dut, eta gure seme-alabek ere", Venezuelatik 1969an honeratu eta Oiartzungo baserri batean hauen aurrean haur euskalduna gorai patu nuenean nola ondoan zeukan bere amak zauritik hizketan esan zigun: "Bai, erraz esaten duzue hau erdaraz ere dakizuten euskaldunek!" Berton etorri zitzaizkidan gogora nere eskolako eta soldaduzkako herritar eta lagun baserritarrak, hemen manduak zaintzen ("mulero") lanetan jarriak! Erdaldunak lan arinetan nagusi! Bestalde, hau zen euskaldun erdaldundu batzuen seinale harroa: hauek erdara kulto ofizialean eskolatuak zirenez gero, bi hizkuntzak ongi erabiltzen zituztela, alegia! Meritua, erdara ikastea zen! Gaur, fenomeno alderantziz jokatzen hasia da Euskal Herriko leku askotan: bide batez euskaldunak dira bi hizkuntzak erraz erabiltzen dituztenak, eta erdaldun bakarra da atzera geratzen ari dena, euskara ofiziala gero eta gehiago falta zaiona! Gaur, beraz, euskalduna dago herri honetan bizitzeko ondoen hornitua, eta erdaldun elebakarra, desarmatuena. Ez da hau bakarra, bi hizkuntzak "bizi-bizi" darabiltzatenak da hirugarrena ere ikasteko gai dena, eta honen ondoan baita laugarren bat ere, ingelesa esate baterako! Gaurko pedagogiak frogatu du bi hizkuntza "bizi" batean erabiltzeko gai denak hirugarrena eta laugarrena ere errazago ikasten duela. Hara, beraz, euskarak, etorkina herriratzeko duen balioaz gain, Euskal Herrian hizkuntzak ikasteko gaitzen duena.